



EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 18koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda onartzen duena. Halaber, horren bidez, lehentasun-hurrenkera zehazteko epea irekitzen da, espezialitate baterako baino gehiagorako eskabiderik aurkeztu badira.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 12ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, aipatutako deialdiak 4. oinarrian xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitu zen).

2. artikulua.– Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

–<https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda»

–<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/> («EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua») – «Onartutako eta baztertutako zerrenda»

3. artikulua.– Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Deialdiaren 8. oinarriak xedatutakoari jarraiki hautatuko diren izangaiek aurkeztu behar dituzten dokumentuak ikusita egiaztatzen bada interesdunen batek betekizunen bat betetzen ez duela, osasun-azterketan ez-gaitzat jotakoak barne, prozedura honetan parte hartzeak eman ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu izangai horrek.

4. artikulua.– Hamar egun balioduneko epea irekitzea, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, salbuespenezko hautaketa-prozesu honetarako eskabide bat baino gehiago egin bada espezialitate desberdinetarako, lehentasun-hurrenkera zehazteko.

Horretarako, espezialitate batean baino gehiagotan onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendetan daudenek lehentasun-ordena adierazi beharko dute eskatutako espezialitateen artean. Izangai bakoitzak interneteko helbide honetatik aukeratu beharko du lehentasun-hurrenkera:



<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkartzeko salbuespenezko prozesua» atalaren bidez, «Norberari egokitutako kontsultak»: **lehentasunen** zutabearen lehentasun-ordenari buruzko digitua adieraziko da, lehenetsitako espezialitateari dagokion laukitxoan 1etik hasita (lehentasunezko aukera) eta horrela hurrenez hurren, eta, amaitutakoan, **Gorde**.

Kautelaz, espezialitate batean baino gehiagotan baztertuta daudenek ere lehentasun-hurrenkera adierazi beharko dute, baldin eta baztertuaren aurkako erreklamazioa aurkezten badute.

Eskatutako espezialitateen artean lehentasun-hurrenkera zehaztu ezean, eta espezialitate batean baino gehiagotan hautatuak izateko aukera izanez gero, puntuaziorik handiena lortu duten espezialitatean soilik hautatuak izango dira, eta puntuazio bera lortuz gero, eskabidea lehenengoz aurkeztu duten espezialitatean, aurkezpen-data eta –ordua kontuan hartuta.

5. artikulua.– Ebazpen honen aurka, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendari dagokionez, izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute hamar egun balioduneko epean, ebazpena argitara eman eta biharamunetik hasita, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango dute zerrendatik kanpo uztea eragin duen akatsa. Halaber, datu pertsonaletan akatsak atzeman dituzten izangaiek akatsak daudela adierazteko aukera izango dute epe horretan.

Erreklamazioak Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta interneteko helbide hauetan aurkeztuko dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Salbuespenezko egonkorte-prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (aukeratu kidegoa eta espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda» – «Erreklamazioak» eta horiek aurkezteko jarraibideak betetzea.
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> («EPE 2022. Irakasleak. Egonkartzeko salbuespenezko prozesua») – «Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda», aurreko ataleko bideari jarraituz.

Interesdunak ez badu adierazitako epean zuzentzen baztertzeko arrazoia izan den akatsa, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 18a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria
BLANCA GUERRERO OCEJO